

# Murua Jauregia Oblatos



*Margolaria: Evaristo Irigoyen*

**Egilea:** Jon Oñate Lizarralde

**Iturriak:** Revistas ONG - AMYCO (Amistad y Colaboracion Oblata)
Fermín Álvarez Errondosoro
Arantxa Álvarez Errondosoro
P. Pablo Fernández
Joxan Ruiz Ortiz
Fernando Ruiz
Urnieta (Teresa Amuategui)
Luis Murugarren
Urnietako Irakaskuntzaren Historia Laburra (Aitziber Salinas Elosegi - Juan Aguirre)

**Itzultzailea:** GARLO (Itzulpen zerbitzua)

**Antolatzailea:** Hernaniko San Joan Konpartsa

2016ko Ekainaren 27a

# Maria Sortzez Garbiaren Misiolari Oblatuak

**MARIA SORTZEZ GARBIAREN MISIOLARI OBLATUAK** kongregazio erlijioso bat dira. **Eugenio de Mazenod** apaizak sortu zuen kongregazioa, 1826an, bi helbururekin: haur eta gazteak heztea, eta Ebanjelioaren berria zabaltzea.


*Eugenio de Mazenod (1782-1861)*


*Joseph Fabre (1824-1892)*

## Madrilgo aurreneko komunitatea (1882)

**MARIA SORTZEZ GARBIAREN MISIOLARI OBLATUAK** 1882ko azaroaren 18an iritsi ziren Espainiara.

Frantzian eragozpen handiekin zebilen oblatuen kongregazioa XIX. mendearen bukaeran, eta Espainiara jotzea pentsatu zuten, leku aproposagoa zelakoan. Bordeleko Familia Santuaren Seroren laguntzarekin etorri ziren mugaren alde honetara.

**Joseph Fabre** aita nagusia Madrilen izan zen 1882ko azaroan, oblatuen betebeharrak jasotzen zituen akordioa ixteko, seroren kapilau izango baitziren, eta ongietorri egin zien azaroaren 18an Bordeletik Espainiako hiriburura iritsi ziren aurreneko oblatuei.

## Nuestra Señora del Sotoko egoitza (1893)

Oblatuen eginkizun nagusia kongregazioa Espainian finkatzea zen. Aurreneko saioetan ez zuten arrakastarik izan. Oblatuen lehenengo komunitatea 1893an ezarri zen Espainian; zehazki, Kantabriako El Soto herrian, Santander hiriburutik 30 kilometrora.

Santutegira hurbiltzen zen jendeari eta inguruetako herritarrei laguntza espirituala ematen zieten, baina kezkatuta zeuden bokazioen kontuarekin. Arlo horretan ere, Familia Santuaren Seroren

laguntza jaso zuten, serora horien senide eta adiskideak izan baitziren komunitatera gerturatzen aurrenekoak. Alabaina, santutegia egoera kaskarrean zegoela ikusita, eta klima osasunerako oso egokia ez zela, Aita Lavillardière-k kongregazioa beste inguru batera lekualdatzea erabaki zuen.

## Urnietako egoitza (1898)

Micaela eta Tomasa Galardi ahizpa urnietarrek, euren testamentuan, dohaintzan eman zituzten Torrea etxea, inguruko lursailak eta Bursinzoro baserria, herriko neskek ikastetxe bat izan zezaten, oinarrizko hezkuntza jasotzeko. Neskei dohainik irakasten gutxienez bost serora aritzea zen ahizpa bien asmoa.

Haien testamentu-albazea Azpeitiko erretorea zen, Agustin Jauregui, eta Madrilgo Loeches herriko serora dominikarrengan pentsatu zuen eginkizun hartarako. Hala, 1897ko urtarrilaren 1ean jarri zuten eliza berria izango zenaren lehenengo harria, eta bedeinkatu ere egin zuten: «Torrea etxearen lursail zabal eta berezian, oin berriko komentu bat eraikiko dugu, Jainkoa gurtzeko eta arimen alde otoitz egiteko. Mariari eskainitako eliza bat egongo da komentuan, eta neskatoen ikastetxe ere izango da».



Komentua eta eliza eraikitzeko lan horietan, asko lagundu zuten herritarrek, bai eskulanaren, bai materialen aldetik. Alabaina, hasiera batean pentsatutakoa baino askoz ere garestiagoa izaten hasi zen obra. Gastuei aurre egiteko, dirua eskatu zieten Loecheseko serorei, baina serorek ezezkoa eman zuten.

Konponbide bat bilatu nahian, Santanderreko El Soto herriraino joan zen aita Jauregui. Bazekien han Maria Sortzez Garbiaren Misiolari Oblatuen ordenako elizgizon frantsesen komunitate bat zegoela, eta leku aproposago baten bila zebiltzala. Gauzak horrela, 1898ko azaroaren 15ean,[1] Urnietara iritsi ziren elizgizonak, eta abenduaren 5ean akordio bat sinatu zuten. Hitzartutakoaren arabera, oblatuek 75.000 pezeta ordainduko zituzten komentuaren truke. Eta betebehar bat bete behar zuten: urtean ehun meza eman, Galardi ahizpen arimaren alde.

1. *Aita Pablo Fernándezek eman digu data hori. Espainiako ordenaren historialariak. Egunari dagokionez (azaroaren 15a). bat dator Teresa Amuateguik emandakoarekin; urtea ez, ordea: Teresa Amuateguik 1899a adierazi digu, eta Luis Murugarrenek 1903a.*

Maria Sortzez Garbiaren Oblatuek ez zeukatenez hezkuntzaren arloan esperientziarik, juniorren ikastetxe bat zabaldu zuten Urnietan; hau da, 11 eta 17 urte bitarteko mutilentzako seminario txiki bat. Erabaki horrek nahigabe handia eragin zien sortzaileei, eta auzoko askori ere bai. Teresa Amuateguiren esanetan, «hortxe galdu zen neska guztiek ikastetxe on batean, dohainik eta herrian bertan ikasteko aukera».[2]



*Oblatoen komentua plazatik ikusita (1914)*



Hasierako komunitatean, zazpi apaiz, bi anaia sekular, bi fraidegai eta 22 junior zeuden. Etxea handia zen; guztira 365 leiho omen zeuzkan. Ramon Etxanizek (1928an jaioa) oso ondo gogoratzen du oblatuen komentua: «Frontoi eder bat zeukan, eta futbol-zelai ikusgarri bat ere bai. Baina herritarrok ezin genuen sartu, eremu pribatua zen eta».

2. Amuategui, Teresa. Op. cit. pp. 125-128.

30eko hamarkadan, 91 junior hezi ziren bertan, sei irakasleren eta sei anaiaren eskutik, aita Matías Mediavilla apaizaren gidaritzapean.



1936ko irailean, erre egin zen eraikina. Bertsio ofizialaren arabera, «gorriek» eman zioten su. Luis Murugarren idazleak Urnietari buruz idatzitako monografian esaten duenez, bonbardaketa batean bezainbesteko kalteak izan zituen eraikinak. Ingurukoek adierazitakoaren arabera, Santa Barbarako lerrotik bidalitako lehergailuek eragin zuten suntsiketa.

Une hartan, 70 junior zeuden eraikinean; horien artean, aita Pablo Fernández historialaria. Beste leku batera joan ziren denak.

## Donostiako egoitza (Villa Pakea)

Urnietako azpiegitura desagertu zenean, juniortza berri bat zabaldu behar izan zuten. Gauzak horrela, 1937ko apirilean, komunitateko kideak eta junior gutxi batzuk Donostiatik gertu zegoen landetxe batera joan ziren. Villa Pakea zuen izena.

Urte batzuk ondoren, leku hobea aurkitu zuten, Villa Pakeatik kilometro gutxitara: Hernaniko Murua jauregia.

# Hernani

## Murua jauregiaren historia

Jauregia 1854an eraiki zuten, eta 1970ean eraitsi. Bitarte horretan, hainbat erabilera izan zituen jauregiak. Berri-berritan, atsedenaldirako etxea izan zen bere jabeentzat; hau da José Antonio Muruarentzat (Hernani, 1818-Madril, 1869) eta bere emazte Tomasa Gómez de Morejónentzat (Iruñea, 1825 – Hernani, 1874). Ez zuten seme-alabarik izan.

Hasiera batean ekonomia apalekoak ziren arren, sekulako dirutza jaso zuten oinordetzan, Ameriketan ibilitako osaba batengandik. Osaba horrek, beste indiano batzuekin batera, laguntza handia eman zuen Hernaniko eraikin batzuk konpontzeko, obren kostua oso-osorik ordainduta. Hala egin zuen, adibidez, Karitateko Mojek zuzentzen zuten ospitalearekin. Ospitaleko egongela nagusian, ongileen koadroak zeuden zintzilikatuta. Urteak aurrera joanda, Zaharren Egoitza zabaldu zuten eraikin horren lekuan.

Jauregiak berak 500 m²-ko azalera zeukan, lau alturakoa zen, eta guztira 54.000 m²-ko lursailak zeuzkan, 11 lurzatitan. Parke handi bat zegoen han, eta eraikin osagarri batzuk ere bai: atezaindegia, zalditegia, berotegiak... Aintzira bat ere bazen, ur-jauzi eta guzti. Errege-bidea zuen mugan, Geltokiko auzorantz, Karapote baserriraino, burdin hesi deigarri bat zuela ertzean. Beste aldeetan, trenbidea eta Zinkoenetik Balantxara (Okendorena) jaisten zen bidea zituen mugakide.



## Herritarrekiko harremana

**José Joaquín Fernández Ayarragaray** arkitektoari eman zioten jauregitxoa eraikitzeko mandatua. Hernaniarra zen arkitektoa, 1821ean jaioa. Bera arduratu zen udaletxea berregiteaz ere, lehergailu batek txikituta utzi baitzuen Bigarren Karlistaldian.



José Joaquín Fernández Ayarragaray (1821 - 1900)

Arkitekto hori katedraduna izan zen Sevillako Arte Ederren Eskolan, eta eraikin ikusgarriak egin zituen XIX. mendearen bigarren erdialdean. Sevillako katedrala, adibidez, berak zaharberritu zuen. Hamar urte baino gehiago eman zituen obra horiek zuzentzen, 1900. urtean hil zen arte.

Etxaldearen administratzailea Jose Antonio Muruaren lehengusua zen: Juan Matías Irigoyen Murua. Udan bakarrik erabiltzen zuen etxaldea; Madrilen igarotzen zuen urtearen gainerakoa, Retiro pasealekuaren ondoan (gaur egun, Hernani kalea du izena, eta Retiro parkera ematen duen ate bat dauka).

Oso ezagun egin ziren jauregitxoan uda-sasoian antolatzen zituzten festak. Jende asko hurbiltzen zen udaren hasieran etxaldera zalgurdiak nola etortzen ziren ikustera.



Bigarren Karlistaldian, Murua eraikinean elkartu ohi zen Hernaniko Batzorde Liberala.

Bi jabeak hil ondoren, haien iloba Casimira Vega Rodriguezen esku geratu zen etxaldea. Iloba hori Iruñeko Gregorio Alzugarayrekin zegoen ezkonduta.

Esaten dutenaren arabera, XX. mendearen hasieran, pasioak eragindako krimen bat gertatu zen sarreran, andrearen zalgurdia burdin hesi nagusia zeharkatzen ari zela.

[illegible], Alsazia eskualdeko jesuita frantsesen kongregazio batek erkuratu zuen jauregitxoa. 200 hipoteka-obli-

gazioren truke. 500 pezetakoa zen obligazio horietako bakoitza. Ikastetxe bat jarri zuten han, barneko ikasleentzat, Collège Saint Ignace izenekoa.







1922an, hamaika zati independentetan banatu zuten jauregitxoaren jabetza. Alabaina, 1926an Carroll Silk andreak eskuratu zuen, eta 1932an, hil zenean, haren iloben eskuetan gelditu zen.

30eko hamarkadan, ikastetxe ere izan zen (Antxoriz). Bigarren Hezkuntza ematen zuten bertan.

# Oblatuen egoitza Hernanin

1939an, lau jaberen esku zegoen jauregia, baina 1942an oblatuen komunitate erlijiosoak bereganatu zuten. Ordura arte, Villa Pakean egon ziren oblatuak.

Denbora gutxian izan ziren bertan juniorrak. Instalazio haietan ikastetxe bat jarri zutenean martxan, denboraldi batez LAS ARENAS aldera eraman zituzten gazteak.

Hernanira itzuli ondoren, ikastetxe publiko erlijioso modura erabili zuten oblatuek jauregitxoa, sei urtez. Gero, Kongregazioaren komentu bihurtu zen etxea, eta parrokia ere izan zen, agustindarren komentuan obrak egiten aritu ziren bitartean.

Guztira, 300 ikasle baino gehiago ibili ziren jauregitxoan; Hernanikoez gain, Urnieta eta Astigarragakoak ere bai.



1970era arte egon zen oblatuen komunitate erlijiosoa Hernanin. Orduantxe bukatu zitzaizkion Murua jauregiari bere egunak. Higiezinen enpresa batek lursaila erosi, eta eraitsi egin zuen jauregia, haren lekuan etxebizitzak egiteko.

Bitxikeria modura, jakin ezazue GARCIA GOLDARAZ deitzen dugun eremuan zeudela Murua jauregia eta oblatuen komunitateak zeukan lursaila. Hala ere, hernaniar askok OBLATUENA deitzen die oraindik; izan ere, hainbeste oroitzapen tartean direla, ez dira erraz ahazten lursail hartan arboletatik fruituak hartzera edo frontoian pilotan jokatzera joandako egunak.



*Margolaria: Evaristo Irigoyen*

# Misioneros Oblatos de María Inmaculada

**LOS MISIONEROS OBLATOS DE MARÍA INMACULADA** son una congregación religiosa, fundada en 1826, por **Eugenio de Mazenod**, con el objetivo de dedicarse por entero a la educación de niños y jóvenes, y también a las misiones de evangelización.



Eugenio de Mazenod (1782-1861)



Joseph Fabre (1824-1892)

## La primera comunidad de Madrid (1882)

La llegada de los **MISIONEROS OBLATOS DE MARÍA INMACULADA** al estado español tuvo lugar el 18 de Noviembre de 1882.

A finales del siglo XIX la Congregación tropezaba con grandes dificultades en Francia y se juzgó que el territorio del estado español podría ser lugar propicio para el Noviciado de los Oblatos y ello se consiguió por medio de las Religiosas de la Sagrada Familia de Burdeos.

El P. General, **Joseph Fabre**, viajó a Madrid en Noviembre de 1882 y, además de cerrar el acuerdo que regiría las obligaciones de los Oblatos como capellanes de las Religiosas, él mismo dio la bienvenida a los primeros Oblatos que llegaron a la capital el 18 de Noviembre, procedentes de Burdeos.

## Fundación de Nuestra Señora del Soto (1893)

La misión principal de los Oblatos era la implantación de la congregación en el Estado. Las primeras gestiones no prosperaron y en 1893 se establece la primera comunidad en El Soto, provincia de Cantabria, a 30 Km. de Santander. Además de la atención espiritual

a la gente que acudía al Santuario y a la de los pueblos de los alrededores, preocupación era también el tema de las vocaciones. Y justicia es reconocer que también en ese campo contaron con la ayuda de las Religiosas de la Sagrada Familia, de tal suerte que los primeros aspirantes procedían de sus familiares o de ambientes relacionados con ellos. Las deficientes instalaciones del Santuario y la vivienda y el clima poco favorable para la salud, fueron motivo para que el Provincial, F. Lavillardiére, decidiera el abandono de esa primera fundación.

## Fundación de Urnieta (1898)

Las hermanas urnietarras Micaela y Tomasa Galardi, en su deseo de que las niñas del pueblo dispusieran de una escuela de instrucción básica, por testamento de 1896 cedieron su casa solar de Torrea junto con los terrenos adyacentes y el caserío Bursinzoro para que allí se creara una comunidad dedicada a la enseñanza gratuita con no menos de cinco religiosas.

Su albacea testamentario Agustín Jáuregui, párroco de Azpeitia, halló interés en una comunidad de religiosas dominicas de la localidad madrileña de Loeches, y en esa perspectiva se iniciaron los trabajos. El 1 de enero de 1897 se realizaba la solemne bendición de la primera piedra de la iglesia nueva en el «ameno y pintoresco Campo de Torrea, donde a mayor gloria de Dios y bien de las almas se levanta un Convento de nueva planta con su iglesia dedicada a María Santísima para enseñanza de niñas».



Con una importante contribución de los vecinos en forma de mano de obras y materiales, se fue acondicionando el futuro convento con su correspondiente iglesia. Pero el coste de la obra se disparó muy por encima de las previsiones. Ello obligó a solicitar más dinero a las religiosas de Loeches para hacerse cargo de los edificios, a lo que rehusaron.

Buscando una solución, el padre Jáuregui viajó hasta Soto, en Santander, donde sabía que existía una comunidad de religiosos franceses de la orden de los Oblatos de María Inmaculada para misiones, que deseaban trasladarse a otro lugar con mejores condiciones. El 15 de noviembre de 1898,[1] los religiosos llegaron a Urnieta y el 5 de

1. *Esta es la fecha que nos aporta el historiador de la orden en España Padre Pablo Fernández. La cual coincidiría en el día (15 de noviembre) pero no en el año con lo señalado, de forma dispar, tanto por Teresa Arruategui (que sitúa el hecho en 1899) como por Luis Murugarren (en 1903).*

diciembre se firmaba el acuerdo por el que los oblatos abonaban 75.000 pesetas por el convento con la obligación de oficiar un centenar de misas al año por el alma de las hermanas Galardi.

Dado que los Oblatos de María Inmaculada carecían de experiencia educativa, se comprometieron a abrir en Urnieta un colegio de júniores, es decir un seminario menor para internos de entre 11 y 17 años. Ello frustraba las expectativas de las fundadoras y de buena parte del vecindario. Tal como afirma Teresa Amuategui, «se perdió la oportunidad de que las niñas todas pudieran beneficiarse de una enseñanza gratuita en un buen colegio en el mismo pueblo».[2]



La comunidad inicial estaba compuesta de siete padres, dos hermanos legos, dos novicios y 22 júniores. El edificio era grande, y se decía que contaba con 365 ventanas. Ramon Etxaniz (nacido en 1928) recuerda perfectamente el convento de los Oblatos: «Tenía un hermoso frontón y un campo de fútbol que nos encantaba, pero los del pueblo no podíamos entrar porque era un recinto privado».

En la década de los treinta aquí se educaban 91 júniores por medio de seis profesores y seis hermanos de la Institución, bajo la dirección del padre Matías Mediavilla.

En septiembre de 1936 el edificio ardió en llamas en un incendio provocado «por los rojos», según la versión oficial. En su monografía sobre Urnieta, Luis Murugarren indica que «sufrió los efectos de un bombardeo y hubo de ser abandonado». Los testimonios orales de los vecinos coinciden en señalar que fueron las bombas enviadas desde la línea de Santa Bárbara las que provocaron su destrucción.

En aquel momento había 70 júniores acogidos, entre ellos el historiador de la orden Padre Pablo Fernández, se trasladaron a otro lugar.

2. *Amuategui, Teresa. Op.cit. pp. 125-129*

## Fundación en Donostia (Villa Pakea)

Tras la desaparición de la infraestructura de Urnieta, vieron la necesidad de abrir un nuevo Juniorado, por ello la comunidad y un número reducido de Júniores se instalaron provisionalmente, en el mes de Abril de 1937, en una casa de campo, Villa Pakea, cerca de San Sebastián.

Al cabo de unos años encontraron una mejor ubicación, a pocos kilómetros de Villa Pakea, en concreto en el Palacio Murua de Hernani.

# Hernani

## Historia del Palacio Murua

La construcción del palacete fué en 1854 y su demolición fue en 1970. Durante este período de tiempo ha sido empleado para diversos fines, siendo desde su inauguración la vivienda de descanso de sus propìetarios, José Antonio Murua (nació en 1818 en Hernani y falleció en 1869 en Madrid) y su mujer Tomasa Gómez de Morejón (nació en 1825 en Pamplona y falleció en 1874 en Hernani). No tuvieron descendencia.



Aunque inicialmente eran de economía modesta, heredó una fortuna de un tío de América. Fue uno de los indianos que contribuyeron a mejorar algunas construcciones de Hernani. Entre éstas, y pagando íntegramente el

gasto de las obras, se encuentra el Hospital regentado por las Monjas de la Caridad. En el salón de recepciones se encontraban colgados los cuadros de ambos benefactores. Al cabo de los años éste edificio fue sustituido por la Residencia de Ancianos.

El palacete disponía de una superficie de 500 m² de planta, en 4 alturas y estaba rodeado de diversos terrenos que en total sumaban 54.000 m² provenientes de 11 parcelas. En él estaba ubicado un gran parque con edificios auxiliares como: portería, caballerizas, invernaderos y un lago con cascada. Sus límites constituían el Camino Real, hacia el barrio de la Estación, llegando hasta el caserío Carapote y estando flanqueado por una verja de hierro llamativa. Otros límites eran la Vía del Ferrocarril y el camino que desde Cinco-enea bajaba a Balantxa (Okendorena).

## Relaciones con el pueblo

La construcción del palacete se la adjudicó al arquitecto **José Joaquín Fernández Ayarragaray**, nacido en Hernani en 1821, quien además efectuó la reconstrucción del ayuntamiento que había sido destruido por una explosión durante la segunda guerra carlista.


*José Joaquín Fernández Ayarragaray (1821 - 1900)*

Este arquitecto llegó a ser catedrático de la Escuela de Bellas Artes de Sevilla y a él se deben algunas de las más importantes construcciones de la segunda mitad del siglo XIX en la ciudad de Sevilla y autor de la restauración de su catedral, obra que dirigió durante diez años hasta que le sobrevino la muerte (año 1900).

José Antonio Murua tenía por administrador de su finca a su primo Juan Matías Irigoyen Murua, siendo utilizada sólo durante el verano. El resto del año lo pasaba en Madrid junto al Paseo del Retiro (hoy se llama Calle de Hernani, que dispone una puerta de entrada al Parque del Retiro).

En el palacete fueron renombradas las fiestas de sociedad que organizaban durante el verano y era espectacular la llegada de varios carruajes a la finca al inicio del verano. Durante la segunda Guerra Carlista, el edificio de Murua albergó a la Junta Liberal de Hernani.

A la muerte de ambos propietarios, esta heredad pasó a manos de su sobrina Casimira Vega Rodríguez, casada con Gregorio Alzugaray, de Pamplona.

A principios del siglo XX se dice que, a la entrada del carruaje de la señora a través de la verja principal, se perpetró un crimen pasional.

En 1909 una congregación de Jesuitas franceses, naturales de Alsacia, adquirió el palacete bajo la forma de 200 obligaciones hipotecarias de 500 pesetas cada.

Instalaron una escuela, para alumnado interno, que se llamó "Colege Saint Ignace".






En Excursion. - Dans la Montagne

En 1922 la propiedad del palacete se dividió en 11 partes independientes, pero en 1926 fué adquirida por Mrs. Carroll Silk, pasando a su muerte en 1932 a manos de sus sobrinas.

Durante los año 30 también se utilizó como colegio ("Antxoriz") impartiendo cursos de educación de secundaria.

# Fundación de los Oblatos en Hernani

En 1939 el palacio está en manos de 4 propietarios, pero en 1942 es adquirida por la Comunidad Religiosa de los Oblatos, que hasta entonces estaba instalada en Villa Pakea.

Breve fue el espacio de tiempo que albergo a los Juniores, pues la puesta en marcha de un colegio en las mismas instalaciones, fue la causa determinante para que, temporalmente, se decidiera cambiar el lugar del Juniorado a LAS ARENAS.



Después de volver a Hernani, el palacete se utilizó por los Oblatos como Colegio Público-Religioso durante seis cursos, transformándose después en Convento de la Congregación así como Parroquia durante las obras en el Convento de las Agustinas.



El total de alumnos que pasaron por las aulas de éste palacete, sobrepasa los 300, provenientes no solo de Hernani sino también de Urnieta y Astigarraga.

En 1970 concluye la etapa de la Comunidad Religiosa de los Oblatos en Hernani y a su vez la desaparición del Palacio de Murua, siendo destruida al ser adquirido todo el terreno por una inmobiliaria para la construcción de viviendas.



Como curiosidad se puede decir que el Palacio Murua y por consiguiente el terreno que ocupaba la comunidad de Padres Oblatos, es lo que hoy en día llamamos "GARCIA GOLDARAZ", aunque ... muchas personas de Hernani a toda esa zona sigan o sigamos llamando "OBLATOS" y es que, entre otras razones y recuerdos, no podemos olvidar los días en los que entrábamos en dicho terreno bien a coger fruta de sus árboles o a jugar a pelota en el frontón de que disponían.

# 1944ko eta 1945eko ikasturteetan Oblatuetako ikasle izandakoen argazkiak

***Hernaniko gazteen zerrenda osoa daukagu, izen-abizenekin. Oblatuen etxeko harmailadi nagusiaren aurrean ageri dira.***

# Fotos del alumnado completo del colegio de los Padres Oblatos de los cursos 1944 y 1945

***Se dispone de la lista completa de los jóvenes de Hernani, enfrente de la escalinata principal del edificio de los Oblatos, con sus nombre y apellidos.***


HERNANI - P. OBLATOS 1944-45


HERNANI
Curso 1944-45

# 1945ko eta 1946eko ikasturteetan Oblatuetako ikasle izandakoen argazkiak

***Hernaniko gazteen zerrenda osoa daukagu, izen-abizenekin. Oblatuen etxeko harmailadi nagusiaren aurrean ageri dira.***

# Fotos del alumnado completo del colegio de los Padres Oblatos de los cursos 1945 y 1946

***Se dispone de la lista completa de los jóvenes de Hernani, enfrente de la escalinata principal del edificio de los Oblatos, con sus nombre y apellidos.***




Junio 1946 Colegio P. Oblatos - HERNANI -

# Lehen



# Orain



Orona

IGOGAILUAK · ESKAILERA MEKANIKOAK · EGITURA ESPAZIALAK

Orona Koop. Elk.
Lastaola Industrialdea. 20120 HERNANI
Tel. 943 551 400
Telefaxa 943 550 047

Hernaniko
Udala

ZULAICA
ASESORIA
Andrekale, 68 • 20120 HERNANI
Tels. 943 551 494 - 943 551 912
Fax 943 551 130




brintza
MAPFRE
LAN AHOLKULARITZA
AHOLKULARITZA FISKALA
ASEGURUAK. INBERTSIOAK

Juan de Urbieta, 15
HERNANI
Tel. 943 331 267
Faxa 943 330 892

Harriberri, 9
ALTZA (Donostia)
Tel. 943 352 794
Faxa 943 353 379

ARALAR
TABERNA

OINDI
taberna
NAGUSIA, 25
HERNANI
943 557 509

HATOR
Aseguruak
Aholkularitza
Andrekale, 60 HERNANI T. 943 554 312
Fiskala
Laborala
Juridikoa
Kontabilitatea


aker
Taberna
zapa kalea 7 HERNANI

PUTZUETA
HARATEGIA - URDAITEGIA

Andrekale, 39
Tel. 943 552 787
HERNANI

electrodomésticos
ANEXO
Mayor, 59 (Cincoenea)
HERNANI
Tel. 943 550 381
Fax 943 335 730

Juan Bautista Erro, 2
ANDOAIN
Tel. 943 591 558